



Inauterien atarian musika emanaldi polita.- Ohi bezala Udal Musika eskolako ikasleek emanaldi polit eta koloretsua eskaini zuten asteazkenean Manuel Lekuonako areto nagusian. Guraso, senide, lagunren aurrean kontzertu ona egin zuten ikasleek doinu klasiko eta berriagoak eskainiz. Emanaldiari hasiera eman zioten txikienek. Dantzan eta kantuan ederki pasa zuten "Lehoia lotara doa" eta Oskorriren "Kantupourri" abestiek. Mozorrotuta bertaratutako txaloak eragin zituzten eta musikariei eman zieten lekukoa. Askotariko doinuak izan ziren oholza gainean pianoa, gitarra, flauta eta biolina nagusi. Pieza klasikoak eta modernoagoak uztartu zituzten emanaldian besteak beste, Eric Claptonen "Tears in heaven", Police taldearen "Every breath you take" mitikoa, James Bonden soinu banda piano eta biolinarekin, Bruno Mars-en "Count on me" beste askoren artean. Mozorro koloretsuak soinean, tradizioa den kontzertu bufoak herriko inauteriei hasiera eman zien.

3 PSE-EE Langabeziari aurre egiteko proposamena

PSE-EEko Jesus Zabalosek plenora eramango duen mozioa aurkeztu zuen. Honetan gizarte eragile ezberdinekin enplegu mahai bat osatzea proposatzen du. Herrian langabezia tasa altuari konponbidea bilatzeko formulak topatu behar direla azpimarratu zuen.

5 SANTA AGEDA Santa eskean, euripean kantatutako koplak

Lasarte-Oriako hainbat talde Santa Ageda bezperan eskean atera zen. Euriari aurre eginez, kantuak eta koplak entzun ziren herriko kale eta tabernetan. Berezitasuna, Earra! bertso eskola, Solaskide egitasmoko kideek eta Xumelakoek Brigitarrei abestutako Manuel Lekuonaren koplak.



6 ATLETISMOA Maria Eugi luzeera jauziko Euskadiko txapeldun

LOKEko gazteak Euskadiko txapelketan lehiatu ziren. Maria Eugi eta Jon Altunak urrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituzten. Maria luzera jauziko Euskadiko txapeldun berria da eta Jon Altuna Egitegi Txintxarriko kazetariak, 800 metroko lasterketan lortu zuen brontzea.



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Asier Odriozola

45ers

Aferrrik da, Estatu Batuen eragina gure kultura, adimen eta bizitza ikuskeran ukaezina da. Horrekin, zuritu nahi dut neure burua gariko pentsamendu hauei jarritako izen-burua jarri ondoren. 49ers talde bat bada, Futbol amerikarrean aritzen dena oso oker ez banabil.

Beno, 45ers orduan. Hori delako idazten duenak, eta neurekin batera herriko beste lagun eta ezagun askok aurtien harrapatuko dugun adina, bihar bertan nire kasuan.

Eta, orain artean gertatu izan zaidan bezala: dena ondo, aizue. Askok dio 20, 30, 40 edo 50 urte betetzen direnean izaten dela halako krisi moduko bat, bizitzak eskue-tan behera ihes egin dionaren sentsazioa duena asko dela alegia han eta hemen. Ez da nire kasua izan, akaso, bizitzako urteetako bakoitza edo areago, bizitako esperientzia bakoitza bakarra, intentsoa eta goitik behera datatutakoa izan delako. Eta gauzak hala egiten direnean arraroa da bizitzak ihes egin dizula pentsatzea ere.

Eta urteek aurrera egin ahala, denbora abiada handiagoan doala dioenari gomendio bat: geratu!!! Bizi instante bakoitza eta hala geldotu egiten da trenaren etxetik. Jabetu bestela oporretan etxetik kanpo ibiltzen garetan zer gertatzen zaigun. Egunetako bakoitzak luzeago denaren itxura hartzen du: biziago, esna-esna, erne gaude-lako ikusten dugun gauza bakoitzaren aurrean, gehiago eta intentsoago bizitzen dugulako momentua, errutinarik gabe, hori baita, errutina, dena gris bihurtzen duena, bizitzari gatzat kentzen diona, egunen joan etorria azkarra, zentzugabea eta nihilista bihurtzen duena.

Bada zerbait, "ona" guzti honetan: gure esku dagoela zein jarrerari heldu eguneroko martxan. Gure esku dagoela zein bizimoduren aldeko apustua egin.

Zorionak, neure buruari, ze letxe!!

Zorion agurrak



Ane Miren

Zorionak pelotin-pelotin. Behingoz iritsi da zure eguna, ondo pasa familia guztiaren partetik



Nora

Zorionak printzesa zure hirugarren urtebetetzean. Muxu potolo bat zure familiaren partetik.



Maria Luisa Pepe

Zorionak elkarrekin pasatako 65 urteengatik eta zorionak aitona zure 90 urte martxoengatik familia guztiaren partetik




Oier

Zorionak polita zure hirugarren urtebetetzean familia guztiaren partetik. Muxu handi bat!



Marijo

Zorionak Julieta!! Ondo pasa zure 32. Urtebetetzea, Muxu erraldoi pila.



Aimar

Zorionak Pirata !!! Ondo pasa zure 8. Urtebetetzean, aita-xo-amatxoren eta zure arrebaren partetik.



Unai

Zorionak zure 9 urtebetetzean. Muxu asko familiaren partetik.



Nora

Zorionak printzesa zure laugarren urtebetetzean! Muxu asko familiaren partetik.



Nerea

Zorionak maitia zure zazpigarren urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partetik.



Saioa

Zorionak familiaren partetik eta egun zoragarria opa dizugu. Muxu handi bat!



Narao

Zorionak Bitxito zure urtebetetzean. 9 muxu erraldoi Julen, aita-xo eta amatxoren partetik!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Harremanen jartzeko telefono zenbakia, 649 526 766.
- Etxea alokatzen da Blas de Lezon, altzariekin bizitzera sartzeko moduan. Harremanetarako telefonoa, 678 018 894.
- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Kokaleku ona. Harremanetarako telefonoa, 615 720 367.
- Garajea itxia alokatzen da Nagusia 69 zenbakian. 70 euro dira. Harremanetarako telefonoa, 943 575 964.
- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Interesatuak daudenak deitu 655 721 774 telefonora.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. Harremanetarako telefonoa, 648 614 769.

Lan-eskariak

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... edozertarako prest. Orduka edota asteburu zein jai egunetan lan egiteko ere bai. 943404015
- Neska arduratsua eskaintzen da haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Ordu-tegi malgua eta erreferentziak diru. Telefono: 616 736 645
- Neska orduka lan egingo luke arratsaldez ume edo adinduen zaintzan, garbiketa lane-tan... Harremanetarako telefonoa, 636 859 655
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Negutegietan, garbitzaile edo frutarekin lana egingo nuke. Harremanetarako telefonoa, 625 423 540

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

• Enara Villaverde Garcia, urtarriaren 27an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 9 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 10 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 11 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 12 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 13 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 14 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Erztzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

• Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixok edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.

Bestelakoak

- DBH mailako ikasleei klase partikularrak emateko prest nago. Ordu-tegi malgua arratsaldetan. Harremanetarako, 695 737 330.
- Urtarriaren 21ean haur manta galdu zen Beko kalen, kiroldegi eta osasun zentro artean. Arkaitz izena du bordatua. Aurkitu duenak dei dezala 616 333 017 zenbakira. Pili.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arribi, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA



Agerraldia astelehenean egin zen Udaletxean eta Pablo Barriok udal gobernuak adostutako adierazpena irakurri zuen, herritarren babesa jaso zuten hiru lagunek.

Turrientes presoaren lagunaren istripua salatu dute

Herrerako espetxera bidean gertatu zen ezbeharra eta onik atera ziren hiru herritarrak, udal gobernuak adierazpena egin zuen gertaera salatzeke

Herrerako espetxea Lasarte-Oriatik 600km-ra dago eta Burgos aldean izan zuten auto istripua Turrientes presoaren hiru lagunek. Agerraldian euskal presoaren dispersio politikoa amaitu behar duela salatu zuten, "eurena ez delako azken istripua izango".

Astebukaeran auto istripua izan zuten hiru Lasarte-Oriatarrek Herrerako espetxera, Mitxel Turrientes presoaren ikustera zihoazela. Lasarte-Oriako EH Bilduk eta udal gobernuak gertaera salatzeke adierazpena egin zuten. Agerraldian Pablo Barriok irakurri zuen adierazpena Herrira-ko ordezkari eta hainbat herritarren babesarekin.

Istripua Burgos aldean izan zuten eta zorionez onik atera ziren hiru lagunak Manolo Elizalde, Urtzi Agirretxe eta Juan Mari "Fleki".

Azken honek udalean egindako agerraldian gertatutakoa azaldu zuen, eguraldi txarrak eta errepidean zegoen izotzak autoaren kontrola galteza eragin zuten eta errepideetik atera ziren.

Hirurak Herrerako espetxean dagoen Mitxel Turrientes presoaren bisitatza zihozten.

Salaketa eta eskaera

Udal batzar aretoan egin zen agerraldian Pablo Barriok EH Bilduk eta Udal gobernuak onartutako adierazpena irakurri zuen.

Honetan gogoratu zuen "oraingoan hiru lagunak onik atera dira baina duela ez asko Argi eta Itzakirekin ondorio latzenak jasan genituen".

Panorama politiko zeharo aldatu dela eta, "gatazka politikoari irtenbide demokratiko bat bilatzeko aukera berriak zabaldu ditu" azpimarratu zuen Pablo Barrio alkateak.

Prozesu honetan urratsa eraginkorrek emateko "lehen-tasunetarikoa bat euskal preso politikoaren afera dago. Preso politikoaren espetxe politika bertan behera uztea, sakabanaketarekin amaitzea".

Eskakizuna argia izan zen, "presoen senide eta lagunaren aurka zuzenduta dagoen sakabanaketa politika honek bukatu egin behar du eta honekin batera euskal preso politikoaren aurkako salbues-

pen neurri guztiak indargabetzea eskatzen dugu".

Kontzentrazioa

Beñat Iriondo herritarrak Herriraren izenean udal gobernuaren adierazpenarekin bat egin zuen eta Bilbon egindako manifestaldi jendetsuari egin zion erreferentzia eta honetan egindako aldarrikapena azpimarratu zuen.

Honekin batera gogoratu nahi izan zuten ere "Mitxel Turrientesek 27 urte daramatza espetxean eta duela zazpi behar luke kalean".

Hau guztiagatik "presoak etxean behar ditugulako" ostiralean egingo den kontzentrazioan parte hartzea deitu zituzten lasarteoriatarrek.

Honakoa gaur, ostirala iluntzeko 20:00etan burutuko da Udaletxe aurrean.

PARTE-HARTZE

Hautatu udalaren logo berria

Udalaren logo berriaren aukeraketa prozesuan parte hartu dezakete herritarrek aurkeztutako lanen artean gustukoaren dutena bozkatuz. Manuel Lekuonako kafetegian dago erakusketa aurkeztu diren 69 lanekin.

Helburua herritar guztiak iritzia emateko aukera izatea da eta horretarako bi taldetan banatu dute parte hartzea.

Batetik, maila pertsonalean eman daiteke bozka webgune berrian www.par-tehartzeta.lasarte-oria.org edota erakusketan bertan esku orri bat betez, logotipoaren ezizenarekin parte-hartze postontzian sartuz.

Bestetik, herriko elkar-teen epaimahai bat dago, eta hauek ere bozka eman-goto dute.

HITZALDIA

Prosalus eta oinarriko eskubideak

Emakumeen Zentro zibikoan Prosalus GKE-ko kideek euren lana azaldu eta Zentroan kokatuta daugoen erakusketen osagarri gisa osasuna oinarriko eskubideak dela azaldu zieten bertan bildutako lagunei.

Lehenik osasuna zer den galdetu zieten bertara hurbildu ziren herritarrei eta jarraian, erakunde desberdinek hala nola, Osasunaren Mundu Erakundeak edo Giza eskubideen deklarazioak diotena aztertutuz. Era berean, estatuen erantzukizunaz hitz egin eta eztabaidatu zuten.

Hurrengo hitzaldi bat ere eskainiko dute datorren asteazkenean 17:00etan Emakumeen Zentro Zibikoan bertan.

ZINEMA

Urpeko altxorrak Manuel Lekuonan

Astelehenean izan zen Urpeko Zinema zikloaren lehen saioa Manuel Lekuona kultur etxean.

Danok Kidek Real Sociedad taldeko urpeko sailaren laguntzaz, bigarren urtez antolatutako saioek datorren asteetan ere jarraitzen izango dute eta film desberdinak ikusteko aukera izango da.

Datorren astelehenean 19:30etan "Cry for Love", "Mina Mari" eta "Guadalupuko Tiburoi Zuriak" izango dira ikusgai. Saioa doakoa da.

Tokiko enplegu mahaia osatzea proposatu du PSE-EEk

Asteazkenean agerraldian PSE-EEko ordezkariak Jesus Zaballosek hurrengo plenora eramango duen mozioa aurkeztu zuen. Honetan gizarte eragile ezberdinekin enplegu mahaia bat osatzea proposatzen du.

Egun langabetuek herrian osatutako plataformarekin bi bilera egin dituzte udal ordezkari, enplegu teknikari eta alderdietako kideek eta "oso positiboki baloratzen ditugu". Biltzen jarraitzeko asmoa dagoela azaldu zuen baina bilera hauetan sortu diren hainbat kezkaen aurrean alderdi sozialistak tokiko enplegu mahaia osatzea beharrezkoa ikusten du.

Langabezia tasa arindu

"Honetan udal ordezkariak, teknikariak, Lanbideko ordez-



Asteazkenean aurkeztu zuen Zaballosek proposamena.

karitza, herriko enpresen ordezkariak eta abar. proposatzen ditugu nolabait enplegu alorrean udalaren esku dagoena egiteko".

Izan ere, Gipuzkoako langabe tasa arindu du Lasarte-Oriatik eta "indar berezia jarri behar da nolabaiteko konponbidea topatzeko".

Langabetuekin egiten diren bilerekin jarraitzeko proposamena egin du Zaballosek baina beste foroak ere eratu.

Datorren asteartean aurkeztuko du mozioa eta honekin batera mahaia osatzeko protokoloa ere landu dutela azaldu zuen "udal gobernuari eta teknika-

riei nolabait lana aurreratu nahi izan diegu, testu oso bat landu dugu eta hau izan daiteke berehala lanean hasteko tresna garrantzitsua".

Oinarrian batzorde honek tokiko baliabideak garatuko lituzke enplegua sortzeko. Horrela egoeraren azterketa sakona eginga, enplegu berriak sortuko lituzketen jarduera ekonomikoak herrira ekartzeko ahalegina egingo litzateke hala adostuta.

Gainera politika ekonomikoak jakinak adostuko lirateke enpleguaren sustapenean aurrerantzean ere, lagun dezaten. "Horrela bidea zein izan behar duen erabakita eta helburuak finkatuta, ahal den neurrian jarduera ekonomikoak herrira ekartzeko gaitasuna izan eta enplegua sortzea lortu daiteke".

Txupina Zabaletako maorien esku

► Larunbatean txupina botatzea Zabaletako konpartsari egokitu zaio ► Eguraldi txarra dela eta ekintzak karpan egingo dira eta desfileekin momentuan erabakiko da zer egin

2013ko inauteriei larunbatean 12:00etan emango zaie hasiera eta festa asteburu guztian zehar izango da nagusi herriko kaleetan. Txupinazoa konpartsen artean txandakatzea erabaki zuten bileratan hauen ordezkariak eta horrela, biharkoan Zabaletakoak arduratuko dira ekimen berezia egiteaz.

Maidar AZURMENDI

Inauteriak bihar eguerdian hasiko dira ofizialki Lasarte-Orian eta festari behar bezalako hasiera emateko txupina botako da Okendo plazan. Konpartsekin egindako bileretan txupinaren ardurarura urtero txandakatzea proposatu zuen udalak eta herriko elkarte eta konpartsa ezberdinek, begi honez ikusi zuten proposamena.

Zabaletatik Polinesiara

Horrela izanda aurten Zabaletako koadrilari dagokio zuziria jaurtitzea. Konpartsan 40 lagun inguru izango dira bertako kide den Kontxu lartzaren hitzetan eta Zelanda Berriko Maori kultura ekarriko dute Okendo plazako ohol-tzara.

Bertatik emango diote festari hasiera, ohol-tza ginean egin behar dutena ordea, ezustekoa izatea nahi dute "aurreratu daiteke pregoitxo antzeko bat prestatu dugula, baita dantza bat ere". Antzепentxoak Maoriekin zerikusi zuzena daukala dio lartzak "konpartsa guztiak Okendon izango dira baina herritarrak

ere animatu eta bertan egotea nahi genuke".

Euren antzerkia egin ostean, banan-banan gainontzeko konpartsak aurkeztuko dituzte eta ohol-tzara igoko dira hamarrak.

Iartzak esan moduan, hauetako batzuek ere zerbait berezia, antzerkiak, kantak, dantzak... prestatu dituzte eta hauek ikusteko aukera izango da aurkezpen ekitaldi berezi honetan.

Eguraldi txarra

Parte hartzeko deia luzatu nahi da eta eguraldi txarra, euritsua, aurre ikusita dagoenez, asteazkenean bildu ziren konpartsak udaleko ordezkariak.

Honetan egunean bertan erabakiak hartuko direla adostu zuten eta printzipioz karpa erabiliko da ekitaldi nagusiak burutzeko eguraldiak hala behartzen badu. Desfileen kasuan berriz, momentuan erabakiko da aurrera egin edota bertan behera uztea.

Larunbatean pintxo potea egiteko aukera izango da herriko hainbat tabernetan, eta egitarauen azaldutakoak baino gehiago dira ekimen-



Iaz Olinpiadak izan zen inauterietako gaia eta kirolari ezberdinak ikusi ahal izan genituen herriko kaleetan barrena.

rekin bat egin dutenak. Azkenean honakoetan izango da edariarekin mokadua opari: Ilargi, Buenetxea, Arkupe, Intsausti, Artizar, Hirualdeta, Galiza, Garakari eta Iñaki tabernak.

Igandean munduko kulturek lekua utziko diote Euskal Inauteriari. Eguraldia oztopo izan ez dadin ere karpan egingo da eguerdiko hamaitzeko eta erromeria beharrezkoa balitz.

Ekintza guztiak mantentzea da helburua beraz herri-tarrei eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta plazara gerturatzeko deia egiten zaie.



Larunbateko eta igandeko desfileak mantentzen saiatuko dira.

113 gaztek atera dute gida baimena euskaraz Buruntzaldean

Maidar AZURMENDI

Lasarte-Oriako Mugica, Lasarte eta Izarra autoeskolak dira gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera egun eskaintzen dutenak.

Hiru autoeskola hauetan 2012. urtean euskaraz azterketa gainditu zutenen 16 ikasleen artean, sarituak Haizea Bravo, Iker Elizegi eta Saioa Gomez izan dira Andoainen atzo egindako zozketaren arabera. Haei azterketa teorikorengatik ordaindutakoa bueltatuko zaie.

2010. urtean martxan jarri zen gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoa Buruntzaldeko udalek bultzatuta. Hauek 2009-2010 ikasturtean diru laguntzak bideratu zituzten autoeskolak behar zuten

materiala euskaraz ateratzeko eta horrela ekimenarekin bat egin nahi zuten autoeskolak materialarekin hornitu.

Egitasmoak pixkanaka arrakasta du ikasleen artean Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako teknikariak agerraldian adierazi zuen bezala izan ere kopurua bikoizten doa urtetik urtera.

113 ikasle

2010. urtean 34 ikaslek gainditu zuten azterketa teorikoa euskaraz, 2011ean 60 eta 2012an 113 ikasle izan dira.

Boris Nogales zinegotziaren hitzetan "gazte gehienek euskaraz burutzen dituzte euren ikasketak eta gidabaimena ere hala ateratzea da erronka".

Gainera, erakunde ezberdinen arteko elkarlana susta-



Buruntzaldeko euskara zinegotzi eta autoeskola ezberdinetako ordezkariak.

tzea garrantzitsua dela azpimarratu dute udal ordezkariak, "iaztik harremanetan ari gara egitasmoarekin bat egin dezaten Foru Aldundiak,

Eusko Jaurlaritzak eta Trafikok".

Honekin batera beste eskualde batzuekin harremanetan jarri direla azaldu dute

erakundeen aurrean indar gehiago egiteko. "Beste eskualde batzuetan lan hau egiten ari da eta garrantzitsua iruditzen zaigu denen artean ekitea helburua lortzeko".

Autoeskolak pozik



Autoeskolentzat, Joxean Bengoetxea, ordezkariak azaldu bezala, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzea aspaldiko nahia zen eta "udalek egindako esfortzu ekonomikoa eskertzekoa da" izan ere, hori gabe ezinezkoa litzateke eta elkarlana ona izan da gainera.

Oso pozik azaldu dira ekimenak izandako harrerarekin eta aurrera egitea da helburua laugarren urte honetan.

Aurten autoeskola bat gutxiago izango da egitasmoaren baitan baina ikasle kopurua igotzen jarraitzea espero dute.



Xumela korua, Earra! bertso eskola eta Solaskide egitasmoko lagunak tabernaz taberna eta Brigitarren komentuan izan ziren kantuan.



Makilen erritmora

Hainbat taldek euriari aurre eginez, Santa Ageda bezperako eskea egin zuten Lasarte-Oria eta inguruetan

Ohitura zaharrak berritzeko asmoz, Lasarte-Oriako hainbat talde Santa Ageda bezperan, astelehenean, eskean atera zen. Euriari aurre eginez, herritarren kantua eta koplak entzun ahal izan genituen herriko kale eta tabernetatik barrena. Aurtengo berezitasuna, Earra! bertso eskola, Solaskide egitasmoko kideek eta Xumela koruko lagunak Brigitarrei abes-tutako koplak izan ziren, Manuel Lekuonak idatziak.

Bertan kopia bereziak entzuteko aukera izan zen. Manuel Lekuonak idatzitako koplak hain zuzen ere.

Lekuona Brigitarren komentuan ezkatututa egon zen bitartean, herriko folklorea eta historia aztertu zuten.

Lan honetan eta bertako, Lasarteko ohiturak sustatzeko asmoz hainbat bilera eta ekintza sustatu zituen herritar gazte koadrila batekin. Horietako batek altxor moduan etxean gorde zituen San Ageda bezperan komentuan abesteko Lekuonak garai hartan, zehazki 1953. eta 1954. urteetan, idatzitako koplak.

Dirudienez, batzuk bertarako espresuki egindako koplak dira eta beste batzuk ordea Lasartera moldatutakoak.

TXINTXARRI

Euria izan zen protagonista astelehen arratsaldean. Baina herriko lau taldek eguraldiaz ahaztu eta Santa Ageda bezperako eskea egin zuten Lasarte-Orian.

Zabaleta auzoko lagunak auzoko kaleetan eta inguruko baserrietan egin zuten oles.

Erketz EDT-ko lagunak ahotsak Lasarte-Oriako kale, taberna eta inguruko baserrie-

tan entzun ziren eta Amalur trikiti eta pandero eskolako ikasleek koplak ere entzuteko aukera izan zen erdigunean.

Kopla bereziak

Talde ugariena Earra! bertso eskolako, Solaskide egitasmoko eta Xumela koruko lagunak osatzen zuten. Hauek tabernaz taberna ibiltzeaz gain Ama Brigitarren komentuan ere izan ziren mojak agurtzen.



Amalur Trikiti eta pandero eskolako gaztebo eta gurasoak ere Santa eskean izan ziren euriari aurre eginez.



Erketz EDT-ko lagunak herrian eta inguruko baserrietan izan ziren eskean.



Zabaleta auzoko lagunak ere euriar ahaztu eta kantuan atera ziren. TXEMA VALLES

LABURRAK.-



Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten LOKEko lau judokak. GORKA ARISTEGI

Ion Arroyo judoka Gipuzkoako txapelkunorde

Igandean, otsailaren 3an, Lezon ospatu zen Gipuzkoako kadete txapelketan izan ziren LOKEko lau judoka gazte Ion Arroyo, Oscar Garrido, Fermin Balda eta Asier Zubizarreta. Hauek bi domina, zilarrezko eta brontzezkoa eskuratu zituzten txapelketan.

Ion Arroyok kadete mailako txapelkunordetza lortu zuen. Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "lehiatzen den lehen urtea da eta asko pozten gara bigarren postua eskuratu duelako".

Brontzezko domina, berriz, Oscar Garridok lortu zuen. Oscarrek hiru borroka irabazi eta bat galdu zuen. LOKEko entrenatzaileen hitzetan, "txapelketa ona egin zuen".

Hauekin batera Fermin Balda eta Asier Zubizarreta ere izan ziren lehiatzen. Ferminek borroka bat irabazi eta bi galdu zituen. "Ez zuen epaileekin zorterik izan", adierazi du Aristegik. Eta Asier Zubizarretak borroka bakarra izan zuen.

LOKEko entrenatzailea pozik dago "denek maila polita eta altua" erakutsi zutelako.

Jesus Criado Buruntz-Azpi elkarteko ehiza txapelketan txapelkunorde

Buruntz-Azpi elkarteak lehengo larunbatean, otsailaren 2an, 2013. urteko elkarteko ehiza txikia txakurarekin modalitateko txapelketa antolatu zuen Buruntza mendian eta Jesus Criado izan zen irabazlea.

16 ehiztarik eguraldi txarrari aurre eginez parte hartu zuten lehiari, Azkorteako ermitatik atera ziren lehiakideak. 45 ehizaki, eper eta fisaiaik, askatu zituzten antolatzaileek eta ehiztariek 31 harrapatu zituzten.

Lehiaketako txapelkunorde Jesus Criadok 6 ehizaki bota zituen eta bere semea Gorka Criado bigarren geratu zen kopuru berdinarekin. Hirugarren postuan, Luis Sanchez izan zen, 5 ehizakirekin. Txapelketa honetan lehen beterranoa Juan Cruz de Eulate izan zen.

Lehiaren ostean, indarrak berreskuratzeko Buruntz-Azpi elkartearean joan ziren guztiak bazkaltzera.

ATLETISMOA.-

Maria Eugi Euskadiko txapelkunorde

Alebin taldea hirugarren izan zen Gipuzkoako kros txapelketan

LOKEko gazteek lan ederra egin dute asteburua. Euskadiko txapelketan bi domina eskuratu zituzten urrea eta brontzea. Alebin mailako neskek ere lan ederra egin zuten Gipuzkoako kros txapelketan, June Eizmendik brontzezko postua eskuratu zuen eta taldea hirugarren izan ziren.

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko gazteek Euskadiko txapelketan lehiatu ziren lehengo asteburuan. Maria Eugi eta Jon Altunak urrezko eta brontzezko dominak, hurrenez hurren, eraman zituzten etxera.

Maria Eugi luzera jauziko Euskadiko txapelkunorde berria da eta Espainiako txapelketarako marka gutxienezko geratu zuen.

Honetaz gain Mariak 60 m. finalean parte hartu zuen eta 8. postuan amaitu zuen lasterketa.

Oscar Goikoetxea entrenatzaileak aipatu digunez, denboraldi ona egiten ari da eta hiru marka gutxienezko ditu dagoeneko gaztetxoak, 60 m., 200m. eta 400 m. lasterketetan.

Era berean, Jon Altuna Egitegi gazteak 800 metroko lasterketan hirugarren postuan iritsi zen helmugara eta bere



Gipuzkoako selekzioak deitu dituen zazpi atletak. Maria Eugi eskuinetik hirugarrena da.

lehengo domina eskuratu zuen, brontzezkoa.

Lehenengo postuetan

Hauetaz gain, LOKEko beste sei gazte izan ziren finaletan lehiari.

Gaizka Ormazabal 200 metroko eta 60 m. hesi-lasterketako finaletan izan zen eta 4. postua eta 5. postuak egin zituen.

Eneritz Busto berriz, altueran 4. postuan izan zen, Ane Galardik ere 4. postua eskuratu zuen jauzi hirukoitzeko eta luzerako probatan. Luzera proban ere, Idoia Olasagasti zortzigarren izan zen.

Maidar Rekondo bosgarren izan zan pisu jaurtiketan eta Asier Eizagirre zazpigarren.

Bestalde, Jose Ramon Latorre herritarra ere izan zen txapelketan lehiari. 60 m. lasterketako sailkapen proban bigarren izan ondoren, finalean laugarren postua egin zuen.

Txapelketak

LOKEko entrenatzailea oso pozik agertu da neska-mutiek egindako lanarekin.

Gainera, Gipuzkoako selekzioak taldeko zazpi atleta deitu dituela aurreratu du Oscar Goikoetxeak. Hauek larunbatean Zaragozan izango den jubeni eta kadete mailako Erkidego arteko txapelketan izango dira.

Eta Gaizka Ormazabal Donostian izango den promesa mailako Espainiako txapelketan lehiatuko da.

Gipuzkoako kros txapelketa

Era berean, Landaberri-LOKE taldeko alebinek igandean XLIX. Adarraga Oroimenezkoan parte hartu zuten Hernanin. Proba hau Gipuzkoako kros txapelketa ere izan zen.

Honetan June Eizmendi gaztetxoa hirugarren izan zen helmugan eta alebin nesken taldeak klubetako hirugarren postua eta ikastetxeetako bosgarrena eskuratu zuen.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 09

Michelin, 12:00etan

Ostadar-Danok Bat
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelin, 15:30etan

Ostadar-Hernani I. Erregionala, Igoera

Berazubi, Tolosa, 16:30etan

Tolosa-Ostadar
Erregional Ohorezko maila

Igandea 10

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Ursurbil Alebina



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 09

Kiroldegia, 15:00etan

ISU Leihok-Gamon K.E.
Gipuzkoako Liga

Mons kiroldegia, Donostia, 18:00etan

Inter Eder kafetegia-Aldaz H.K.
Nazional III. maila

SASKIBALOIA

Larunbata 09

Kiroldegia, 10:00etan

Landaberri-Bera Bera Peñafloreda B
Infantil txiki neska, partehartzea

PILOTA

Larunbata 09

Hernani, 11:00etan

Hernani-Intza Eskuz binaka, I. jubeni
Intxaurre, Zizurkil, 12:30etan

Ziotza-Intza

Eskuz binaka, II. kadetea

Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan

Intza-Añorga 2 Eskuz binaka, infantilak



SANBOA

Larunbata 09

Xixon, 9:00etatik 14:00etara

LOKEko Josu Olmos, Oscar

Garrido, Esteban Martinez eta
Fermin Balda Sanbo eta borroka
ataleko junior mailako Espainiako
txapelketan izango dira.

Igandea 10

Xixon, 9:00etatik 11:00etara

LOKEko Asier Sagasti eta Amaia
Curiel Sanbo eta borroka ataleko
senior mailako Espainiako
txapelketan izango dira.

ATLETISMOA

Larunbata 09

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,
10:00etan

LOKEko Gaizka Ormazabal gaztea
promesa mailako Espainiako
txapelketan parte hartuko du.

Zaragoza, 15:00etan

LOKEko Itoitz Rodriguez, Idoia
Olasagasti, Eneritz Busto, Yeray
Veroniz, Ane Galardi, Maria Eugi eta
Maidar Rekondok jubeni eta kadete
mailako Espainiako Erkidego arteko
txapelketan parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 10

Kirol guneko bolatokia, 10:00etan eta
16:30etan

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak
bikotekako txapelketako hirugarren
jardunaldia jokatuko du.



Agenda

Larunbata 9 eta igandea 10, Lasarte-Oria



Mozorro festa koloretsua

Inauteriak izango dira Lasarte-Orian. Larunbatean Munduko Kulturak izango dira nagusi. Festa giroa ederra izango da Okendo plazan goizean. Aratsaldean, beriz, herriko elkarte eta koadrilak dantzan ikusteko aukera izango da. Igandean, beriz, Ttakun K.E-k antolatutako Euskal Inauterien txanda izango da.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 16, 18:00etan

Teatro Paraiso taldeak "Ezetx hegan egin" haur antzerkia eskainiko du. Sarrera leihatilan 3,70 euro; internetez, 3,24 euro. Euskaraz.



Hitzaldia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA
Asteazkena 13, 17:00etan

PROSALUS elkarteak lagunek hitzaldia eskainiko dute.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Hilabete osoa

PROSALUS elkartearen "Elikagaia izateko giza eskubidea" panela ikusgai izango da.

Astelehena 04-Ostirala 14

Lasarte-Oriako Udalak irudi korporatibo berria aukeratzeko erakusketa jarri du. Herritarrek lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusi eta gustoko dituztenak bozkatu ahaliko dituzte.

Ostirala 15-Astelehena 01

Patxi Altuna herritarren arte lanak ikusgai izango dira.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Ostirala 01-Ostirala 15

PROSALUS elkartearen "Osasuna eskubidea dela" erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 17, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Kiriku eta basapiztiak" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

Osteguna 21, 21:30etan

Ostegun zinea atalean, "En la casa" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro.

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala 08, 23:45ean

Metal gaua izango da Donostiako Helldamm eta Salamankako K-OS taldeen eskutik. Helldamm taldeak bere lehenengo maketa aurkeztuko du. Sarrera aurretik 6 euro, leihatilan 8 euro.

TRUMOI TABERNA

Larunbata 09, 19:00etatik aurrera

Rafafa magoaren emanaldia izango da. Ostean, Ramonesen bertsiorez gozatu ahaliko da Ramonetarrak taldearekin, baita The Garax talderen punk garage 80eroarekin ere.



II. Urpeko Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 11, 19:30etan

"Cry for Love" eta "Mina Mari" film laburrak eta "Guadalupeko marrazo zuriak" dokumentala ikusiko dira.

Astelehena 18, 19:30etan

"Neskatala baten mezua" film laburrak eta "Ondinesia" dokumentala ikusiko dira. Danok Kide elkarteak Real Sociedad kirol elkarteak urpeko sailak antolatuta.

Herritarren txokoa

Lasartearra elkarteak XXXVI. mus txapelketa

Lasartearra elkarteak bere bazkide eta lagunei jakin arazten die, XXXVI. Mus txapelketan parte hartzeko izena ematea ireki dela. Izena eman nahi dutenak elkartera hurbildu behar dira, otsailaren 20a baino lehen.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoatik jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, lau betaurreko graduatu, patinete bat, neskatal baten poltsua eta diruzorroa eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan

dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Biyak Bat elkarteak kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxoa amaiera arte ordaindu ahaliko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak. 85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Korrika egiteko talde amateurra

Herrian korrika egiteko talde amateurrra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Zita, ateri dagoen astelehenean 20:00etan hipodromoko zubian. Karakol eta bareak animatu!



Korrika-ko ginkana

Korrika 18-aren barruan, Lekukoaren bila ginkana antolatuko da hainbat herrietan. Lasarte-Oria eta Usurbilgo lagunek ginkana berezi honetan parte hartzeko aukera izango dute. Ginkana otsailaren 16an Usurbilen jokatu da, hitzordua 17:00etan pilotalekuaren atzean.

Korrika-ko mus txapelketa

Korrika 18-aren barruan, Gipuzkoako II. Mus txapelketa antolatuko da. Usurbil eta Lasarte-Oriako kanporaketa otsailaren 23an, 16:00etatik aurrera izango da Xirimiri elkartearen.

Izena ematea egunean bertan 15:30ak aldera irekiko da. Bikoteko 5 euro ordaindu beharko dira.

Kanporaketako bi bikote finalistentzat sariak egongo dira.

Korrika-ko kilometroak salgai

Korrika 18-ko kilometroak salgai

daude. Lasarte-Oriako elkarte, alderdi politiko edo banakakoek erosi dezakete kilometroa, era honetara AEKri bere laguntza emanaz.

Muntteri AEKko arduradunek azaldu dutenez, gure herrian kilometro erdiak izango liriteke.

Kilometro erdiren bat hartu nahi dutenek Muntteri-AEK-ra hurbildu edo telefono zenbakira ditu behar dute.

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekueetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Muntteri-AEK-n.

12 euro balio duen txartela erosi, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Pablo Suberbiola Soziologia Klusterreko ikerlaria

“Ikasleen hizkuntza erabileraren argazki orokorra atera dugu”

- Arrue ikerketak frogatu du eskoletan gizartean baino gehiago erabiltzen dela euskara
- Haurrak helduagoak izan ahala erabilera datuak “gizartearen joerara” hurbiltzen dira

Euskal Autonomi Erkidegoko ikasgeletan, oro har, gizartean baino euskara gehiago erabiltzen da, eskoletako euskararen erabilera neurtzeko egin den Arrue ikerketaren arabera. Gainera, egitasmoan aritu den Pablo Suberbiola soziologoak adierazi digunez, “ikasleak helduagoak izan ahala, gizartean diren erabilera joerata hurbiltzen dira, “konbergentzia” gertatzen da eta beraz euskararen erabilera apalagoa da”. 2011 urtean LH4 eta DBH2 mailetako ikasgela guztietan egin zuten galdeketa.

Jon ALTUNA IZA

Pablo Suberbiola Lasarte-Oriako soziologoa 2004tik Soziolinguistika Klusterra sortu zenetik ari da bertan lanean, eta duela gutxi aurkeztu duten Arrue ikerketaren bidez egiaztatu dute Erkiidegoko eskoletan, gizartean baino euskara gehiago erabiltzen dela eta, oro har, 9-10 urteko haurrek, 13-14 urtekoek baino gehiago darabilte.

Egitasmoan aritu den Pablo Suberbiolak adierazi digunez, “pentsatu daiteke ikasleak helduagoak direnean beraien erabilera lotuago dagoela gizartean dauzkaten beste erabilerekin”. Dena den, lehen aldiz egin da horren ikerketa zabal eta hainbat ikerlariren artean pentsatu dute “zuhurtziarekin” hartu behar dela, ez delako aztertu ikasle berberen jokabidea adin desberdina dutenean, momentu berean bi ikas maila, baizik.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskoletan hizkuntza ohiturak aztertu dituzue... Zein ondorio nagusi atera dituzue?

Labur esateko egin duguna azken finean eskoletako ikasleen hizkuntza erabileraren argazki bat da. Argazki orokorra da, Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde guztia hartzen du eta bi ikas mailatan egin da, 9-10 eta 13-14 urtekoekin.

Bizpahiru ondorio nabarmendu ditugu, eskola munduan dabilen edonork jakin ditzakeenak, baina agian beste batzuentzat ezezagunak: bata, gaur egun gelan gehiago erabiltzen dela euskara jolas-tokian baino; bestea, batez ere 9-10 urtekoen artean, oro har euskara gehiago erabiltzen dela eskolan, gizartean baino. Eta hirugarrena, batez ere jolaslekuko erabileran, baina baita gelakoan ere, euskararen erabilerak altuagoak direla

9-10 urtekoen artean 13-14 urtekoen artean baino. Beste era batera esanda, adinean aurrera egin ahala behera egiten duela erabilerak.

Adin maila horietan ikasle guztietara heldu zarete, 36.820 ikasle 850 eskoletan...

Kaleko jendearentzat ez hainbeste, baina, ikerketa mailan dabiltenentzat notizia inportanteena 2011ko datu horiek edukitzea da.

Zergatik erabiltzen da euskara eskoletan, beste eremu batzuetan baino gehiago?

Besteak beste eskoletan lan handia egin delako. Gutako edonork ezagutuko dugu gugandik gertu irakasleren bat, orain dela 20 urte euskararik ez zekienez, eta urte batzuetara klaseak euskaraz ematen zituen. Hori gertatu da orokorrean eta salbuespen oso gutxirekin. Hau da, sektore oso batek ahalegin handia egin du.

EAEko gizarteaz orokortasun batetik hitz egitea zaila da, ñabardura eta gorabehera handiko panorama daukagularik, baina, esan daiteke, gizarteko beste hainbat arlotan ez dela egon inola ere hezkuntzan egon den bilakaerarik.

Duela 50 urte ikastolen sorreran parte hartu zutenek, eta eskola publikoan eskola eskalduntzeko ahaleginetan aritu zirenek, azken finean izen abizena dute, baina ez zuten kolektibo ere izan da.

Ikasle helduagoak gutxiago darabilte euskara, ez al da hori esanguratsua bezain arrisku-tsua hizkuntzarentzat?

Bai. Saiatzen gara datu horien atzean egon daitezkeen zergatiak analizatzen eta esan daiteke 9-10 urterekin eskolan eremu babestuago bat sortzen dela, gizarteko beste esparru batzuetan baino euskararen



Pablo Suberbiola herritarrekin Soziolinguistika Klusterrean egin duten azterketari buruz hitz egin genuen.

“Lan handia egin da eskolak euskalduntzen. Gizarteko beste hainbat arlotan ez da egon inola ere hezkuntzan egon den bilakaerarik.

erabilera normalagoa, baina 13-14 urterekin berdintze bat ematen da gizartean batz bestekoak diren parametroetara, guk “konbergentzia” hitza erabili dugu.

Dena den, datu polit bat bada, zonaldeka begiratuta: alderaketa gehienetan gertatzen da jolasleku eta gelako erabilerak baxuagoak direla 13-14 urtekoen artean, baina kurioski, EAE guztian, euskaldunen proportzioa ehuneko 60 baino gehiago dituzten herrietan ez da ia jaitsierarik, ez gelatik jolaslekura eta ez 9-10 urtetik 13-14ra.

Ehuneko 60 baino gehiago euskalduna den herrietan, gizarte bizitza orokorra neurri handi batean euskaraz gertatzen da eta ikasleek ez dute hizkuntzarik aldatzen.

Beraz ez da zuzena esatea ikasleak helduak izan ahala erdara gehiago erabiltzen dutenik. Ikasleak helduak izan ahala egiten dute gizarte horretan helduek egiten dutena.

Ba al dauka bueltarik horrek?

Bai. Duela 30 urte pentsatzen zen eskolako lan hori egitearen euskara dena eginda zegoela.

Baina, ikasleen ehuneko 30k du lehen hizkuntza euskara, beste 70ak eskolari esker jaso du. Beraz ikasle gehienek bestela edukiko ez luketen bagaje linguistikoak daukate, gurasoek ez zeukate. Beste kontu bat da erabiltzeko dauzkaten erraztasun eta aukerak.

Lasarte-Oria emaitza orokor horien maila egongo da gutxi gora behera?

Pentsatzekoa da egongo dela. Ez daukagu herriz herri daturik. Baina hainbat aldagaik eragina dute, ereduak oso nabarmena, baita irakasleen arteko hizkuntza ohiturek, ikastetxe bakoitzeko giroak, nola zaintzen diren eskolaz kanpoko ihar-duerak... Hor seguruenara ikastetxetik ikastetxera alde handiak egongo dira. Dena den, Lasarte-Oriako ikastetxe-

tan joera orokor horietako batzuek emango dira.

Zein iritzi duzu Lasarte-Orian euskarak duen egoeraz...

Ez daukat datu berririk, baina askotan tokatu zait entzutea, Lasarten hainbat ekimen gorpuztu direla beste toki batzuetan garatu ez direnak eta horrek baditu bere efektuak.

Zein etorkizun dauka, oro har, euskarak? Desagertuko al da urte batzuek barru?

Ez dirudi berehala desagertuko denik. Kanpotik etortzen diren adituek sarri esaten digute, hemen euskararekiko dagoen zer hori estimatzekoa dela. Nik uste oso harro egon behar dugula, gure izateari eta Sarasolak aipatzen duen lehengoek transmititutako arnas horri, eman zaizkion bertsio berriengatik.

Ohartu al zarete zer nolako euskara darabilten ikasleek?

Zeharkako erreferentziaz soilik. Irakasleek kontaktzen digutenez, euskara ondo dakiten ikasleek behar dutenean erabiltzen dute euskara zuzenagoa. Erdal kontzeptuak edo hitzak erabiltzen dituztenean, ez da euskarazkoak ezagutzen ez dituztelako, horrek ematen duen kutsua edo espresibitatea gehitu nahi dutelako baizik.